

## V. ERANSKINA

### SAP/APZko LANKIDE ETA LANGILEENTZAKO ISILPEKOTASUN KONPROMISOA

..... jaun/andreak, ..... zenbakiko nortasun-agiria duenak, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Arreta Psikologikorako Zerbitzuari laguntzen dio, ..... moduan (adierazi dagokiona, hurrengo aukeren artean)

- a) SAP/APZko irakasle lankidea
- b) Graduoko ikaslea
- c) Graduondoko ikaslea
- d) Psikologo kliniko kontratatua

#### ETA ADIERAZTEN DU

UPV/EHUko Arreta Psikologikorako Zerbitzuko funtzionamendu-sistema eta sistema hori zuzentzen duen araudia ezagutzen dituela, eta hitzematen du bertako funtzionamendu-arauak beteko dituela eta tutorearen (lehen aipatu diren b) eta c) kasuetan) eta Zuzendaritza Kontseiluaren (lehen aipatu den a) kasuan) gainbegiratzea eta zuzendaritza onartuko dituela; eta

#### HITZEMATEN DU

- a) Tratamenduaren jarraipena egiteko fitxa protokolizatua beteko duela.
- b) Zerbitzura jotzen duten pertsonen datu guztiak isilpean gordeko dituela. Horretarako, ez du kasuei buruzko adierazpenik egingo eskuhartzearen testuingurutik kanpo, ez du saioetako informaziorik zabalduko (oharrak edo fotokopiak) eta eskuratutako informazioa ez du erabiliko Zerbitzuarekin zerikusirik ez duten xedeetarako.
- c) SAP/APZko materiala (informatikoa, irudia eta soinua, altzariak, papertegiko materiala, liburuak, etab.) behar bezala erabiliko eta zainduko duela, eta Zerbitzuaren xedeetarako bakarrik erabiliko duela.
- d) SAP/APZko instalazioak zainduko dituela.
- e) Esleitzen dizkioten kasuak amaituko dituela, dagozkion txostenak idatziko dituela, eta sorturiko material guztia (galdetegiak, elkarrizketak, auto-erregistroak, saioen egunerokoa, etab.) Zerbitzuko artxiboetan gordeko duela.

Donostian sinatua, .....(e)ko.....aren.....(e)an.

Sinadura: .....